

Hegel: nagusitasuna eta morrontza

Bere *Gogoaren fenomenologia* (1807) lanarekin, Hegelek bere pentsamenduaren alderdi epistemologikoa mahai gaineratzen duela adieraz genezake. Azterketa-lan horri ekiteko asmoz, ezer baino lehen, sentipenezko ziurtasuna hartzen du abiapuntu gisa. Hasiera batean badirudi ezagutzarako objektua kanpoan kokatzen dela, kontzientziatik at existituz, kontzientzia objektua pasiboki jasotzera mugatuko litzatekeelarik. Dena den, Hegelek dualismo hori ukatzen du; izan ere, izatea ez da emanda agertzen, ez da bitartegabea; da beste zerbait ez den heinean. Kontzientzia sentisiblerik kontraesanera iristen da, partikularretik unibertsalerako saltoa ematen baita ezinbestean.

Ondoren, hautemapenaren agertokira igarotzen da filosofo alemana. Aldiz, maila honetan ere kontraesanera iritsiko da kontzientzia, ez baita gai gauzaren identitatearen eta haren ezaugarrien aniztasunaren arteko batasuna ezagutzeko. Areago, “gauza” kontzeptuak berak dauka izaera kontraesankorra; izan ere, ezin da hura bestearekin duen harreman orotik askaturik, isolaturik ulertu –gauza berarentzat baita, baina baita beste batentzat ere–. Ezinbestekoa izango da batasunetik aniztasunerako mugimendua pentsatzea –“del ser-para-sí al ser-para-otro” (Garaudy, 1966:72)– eta hori indarraren nozioak egingo du, pentsapenaren maila gainditu eta adimenean murgilduz. Horrela, dagoeneko gauzatik harremanera igaro gara. Adimenari dagokionez, hasieran objektuak mugimendua eskuratu du, indarra, alegia –“el movimiento reflejo que se expande y regresa a sí mismo” (Valls Plana, 1971: 62)–, baina kontzientziak oraindik objektua bere ekintzatik independentea den zerbait bezala hartzen du. Hala ere, beranduago, ohartzen da berbaitango gauza bere burua dela; horrela, kontzientzia autokontzientzia bilakatuko da.

Adierazi bezala, lehenengo momentu batean, kontzientziak bere burua kontzientzia gisa aitortzen du eta, hortaz, objektua beregandik kanpo bilatzen du. Hots, bestea (“el ser otro”) izate edo une ezberdindu bezala agertzen da. Aldiz, bigarren momentu batean, kontzientziaren eta diferentzia horren arteko batasuna ematen da; hau da, kontzientzia

ohartzen da ordura arte harengandik kanpo zegoen eta arrotza zitzaion objektu bezala kontsideratutako beste izatea –berekiko ezberdindu gisa agertzen zena– bera, bere burua besterik ez dela. Kontzientziak bere burua objektuan errekonozitzen du, ezagutza eta objektua identifikatzen direlarik. Horrela, kontzientziak bere buruarekin osatzen duen batasun horretan bilakatuko da kontzientzia autokontzientzia. Autokontzientziak, beraz, objektu bikoitza dauka: batetik, sentipenezko ziurtasunaren eta hautemapenaren objektu bitartegabea –orain arte “beste”, “izaera negatibo” bezala agertu izan dena–, eta bestetik, autokontzientzia bera, bere burua. Horrela, autokontzientziarekin kontzientziaren eta haren negazioa litzatekeen beste objektuaren arteko aurkaritza gainditu da; dagoeneko autokontzientziak bere buruarekin bat egin du.

Ezagutzaren aurreko une guztiak –sentipenezko ziurtasunaren objektu bitartegabea, hautemapenaren gauza eta adimenaren indarra– autokontzientziak bere baitan integratu ditu, baina dagoeneko gainditutako momentu gisa. Dena den, kontzientziaren eta objektuaren arteko batasun hori ezin da jatorrizko batasunarekin identifikatu; izan ere, aipatu prozesuaren sintesiak dakarren batasunak izaera unibertsala dauka, aurreko une oro bere baitan integratuta dituelarik.

Hegelek, haratago, kontzientzia bat soilik beste kontzientzia batekin harremanean sartzen denean dela autokontzientzia adierazten du; hau da, autokontzientziak beste autokontzientzia baten aurrean soilik errekonozitzen du bere burua (Hegel, 1807: 132). Izan ere, autokontzientziak bere buruaren gaineko ziurtasuna izateko bestearen errekonozimendua behar du. Alexandre Kojevek *La dialéctica del amo y el esclavo en Hegel* (1982) lanean giza-desioaren nozioa azaltzen du: animaliek (“Yo-natural”) gauza naturalak desiratzen dituzten bitartean (janaria, esaterako), gizakiak desirak desiratzen ditu, hots, besteak desiratzen duen hori desiratzen du. Honela adierazten du autoreak:

El hombre se reconoce humano al arriesgar su vida para satisfacer su Deseo humano, es decir, su Deseo que se dirige sobre otro Deseo. (...) Desear el Deseo de otro es pues en última instancia desear que el valor que yo soy o que represento sea el valor deseado por ese otro: quiero que él reconozca mi valor como su valor; quiero que él me reconozca como un valor autónomo. Dicho de otro modo, todo Deseo humano, antropógeno, generador de la Autoconciencia, de la realidad humana, se ejerce en función del deseo de reconocimiento (Kojève, 1982: 3).

Finean, autokontzientzia batek besteak bere burua (nagusi bezala) berrezagutzea nahi du, bestea hari azpiratzea, alegia. Horrela, konfrontazioa sortzen da bi autokontzientzien artean, hil ala biziko borroka bilakatzen dena. “Borrokan egin behar dute, zeren bere baitarako izateaz duten ziurtasuna egia bihurtu behar baitute bestean eta euren baitan” (Hegel, 1807: 135). Hori horrela, borroka horretan bi autokontzientziatiko batek heriotzak eragiten dion beldurra gainjartzen du desioaren aurrean. Hori dela eta, bere bizitza arriskuan jartzeko beldur den autokontzientziak ez du eskuratuko errekonozimendu horren egia autokontzientzia independente gisa eta, horrenbestez, beste autokontzientziarekiko menderatuta geratuko da. Horrela ematen zaio giza-historiari hasiera, Hegelen arabera. Nagusiaren eta morroiaren dialektika bezala ezaguna dena garatuko da hemendik abiatuta. Autokontzientzia independente gisa agertzen dena nagusia litzateke; azpiraturik geratu den kontzientzia, berriz, morroia. Dena den, menderatua den aldetik, esklabua ez da subjektu independentea izango, eta honek nagusia egoera atsekabe batera eramango du; izan ere, esklabu batek berrezagutu du, ez autonomoa, askea den pertsona batek. Ez du eskuratu, beraz, errekonozimendu errealik.

Morroiak nagusiarentzat egiten du lana. Nagusia, bitartean, gozamenera, aisialdira mugatzen da. Hortaz, morroiaren bitartez soilik ahalbidetzen da naturarekin harremana, bera baita natura eraldatzen duena bere lanaren bidez. Horrela, batetik, nagusia subjektu pasibo bihurtzen da, animalia hutsa, naturaz gozaten baitu hura bere kabuz transformatzeko beharrik izan gabe; bestetik, esklabua kultura eratzen hasten da, materia nagusiaren beharretara moldatuz. Horrela, hasieran geneukan eskema eraldatu eta morroia gizaki eta jauntxoak, bestalde, gauza edo animalia izatera iritsiko lirateke.

Ikusi dugu dialektikaren lehenengo momentua –historiaren jatorria– bi autokontzientzien enfrentamendurekin ematen dela. Bigarren momentua negazioa litzateke, non batak bestea ukatzen duen, azken hori menderatzen duelarik. Hirugarren momentua edo aurreko negazioaren negazioa esklabuak kultura sotzearekin batera nagusia ukatzen duenean emango litzateke. Morroiak eratzen duen giza-kulturan aurreko une oro dago integraturik.

Gizakiaren emantzipaziorako prozesu oro esklabuaren kontzientziatik igarotzen da. Bere lanaren ondorioz, mundu naturalaz gain, bere burua ere eraldatzen du; izan ere, lanak, natura birmoldatzearekin batera, gizakia azaleratu edo kanporatzea dakar nolabait, objektuarekin

harremanetan jartzen da subjektua (Garaudy, 1966:85). Hegelen arabera, historiaren benetako sortzailea langilea, lana egiten duen hori da.

Ia 40 urte beranduago, Marxen *Eskuizkribu filosofikoak eta ekonomikoak* (1844) obran Hegelen IV. atalaren eragina antzeman daiteke. Aipatu eskuizkribuetako “Lan alienatua” atalean jauntxoaren eta morroiaren arteko dialektika hegeliarra hartzen du pentsalari alemanak abiapuntu gisa, hori sistema kapitalistaren eskema edo egiturara moldatuz. Langilea esklabua da, nagusiaren menpekoa, eta objektu bezala agertzen da, ez baitu askatasunik, subjektu independente izateari utzi baitio. Dena den, lehen begiratuan eman zirudienaren kontra, burgesa –nagusia– langilearen –morroiaren– menpekoa ere bada, bere lana behar du-eta aberasten jarraitzeko; ezinbestekoa da langileriaren existentzia burgesia existitu dadin. Hasiera batean alde bakarreko dependentzia-erlazioa zela zirudien arren –hots, langilea kapitalistaren menpeko zela–, ondoren antzeman daiteke klase menperatzaileak ere badaukala klase menperatuaren beharra, bestela ezingo bailitzateke burgesiaren kondizioa existitu.

Hala era guztiz ere, Hegelen lanaren nozioan murgilduz, nahiz eta Marxek ere lanari ezinbesteko garrantzia ematen dion –gure beharrak asetzera begira, natura eraldatuz eta horren gaineko gero eta kontrol handiagoa eskuratuz doa gizartea bere burua egiten, nolabait–, lanaren kategoriak kapitalismoaren baitan hartzen duen formak, ordea, langilea askatzenetik urrun, menpeko-kondizioan are gehiago hondoratzen duela aditzera ematen du. Izan ere, soldatapeko lanak bere baitan dakarren alienazioak, giza-kultura zein -historia eraiki eta, ondorioz, emantzipaziorako baldintza izan ordez, lana arrotz, gugandik at dagoen eta gurea ez den indar gisa agertzen da egun. Horrenbestez, bai, agian lanak bere baitan giza-askapenerako baldintza ezar dezake; ez, ordea, lan asalariatuaren formapean, hau da, ez ekoizpen modu burgesean.

- BIBLIOGRAFIA:

GARAUDY, R. (1966), *El pensamiento de Hegel*, Seix Barral, 1974, Bartzelona.

HEGEL, G. W. (1807), *Gogoaren fenomenologia I*, Klasikoak, 2005, Bilbo.

KOJEVE, A. (1982), *La dialéctica del amo y el esclavo en Hegel*, La Pléyade, 1982, Buenos Aires.

MARX, K. (1844), *Karl Marx: Idazlan hautatuak*, Klasikoak, 2004, Bilbo.

VALLS PLANA, R. (1971), *Del Yo al Nosotros. Lectura de la Fenomenología del Espíritu de Hegel*, Estela, Bartzelona.